

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko martxoaren 30a. IX. urtea. 2.385. zenbakia. tolosaldea.hitza.info




Atzo arratsaldean, sindikatuek eta eragileek deituta, eskualdeko manifestazio jendetsua egin zuten Tolosaldeko kaleetan, Trianguloatik abiatuta. i.g.L.

Sindikatuek greba orokorraren arrakasta nabarmendu dute

Langileek beren jarduna erabat eten zuten, atzo, Tolosaldean eta Leitzaldean; enpresa ia guztiak itxi egin zituzten, baita saltokiak ere, eta ondorioz, piketeek ez zuten lan gehiegirik izan o2-4

Anoeta eta Irurako udalek atez ateko bilketaren aldeko mozioa onartu dute

Bi udaletan Bilduko aldeko bozkek jaso ditu idatziak, eta EAJko zinegotziak kontra azaldu dira o7



Maialen Abaigar eta Egoitz Luisa

Herrira mugimenduko kideak

«Hileko azken ostiraleetako mobilizazioak indartzea da gure helburua»

Elkarrizketa o7



Zatoz bizilagun berriak ezagutzera.

SICOS ek 2012/03/22 an 19:00tan zabaltzen du.

Orduetara SICOS era. Adituak gara Apple markarekin erlazaturiko gurien, beraz, bere produktu eta osagarriak eskaintzeaz gain, etekina itarazten lagunduko dizuten esagupenak ere baditugu. Ingaratu zaitez gure denda berrira eta ezagutu ezazu Apple familia.

(SICOS)

Martxoak 22, 23 y 24n %10ren deskontua izango duzu zure Mac ordenagailua erostean.

(SICOS) San Martin 9, 20005 Donostia www.sicos.es Tlf.: 943 441 279





Arratsaldean Leitzan eta Tolosan egin zituzten eskualde mailako manifestazioak. Biak ala biak jendetsuak izan ziren. Irudian, Tolosakoa. I. GARCIA LANDA

Lan erreformaren aurkako grebak erabat geldiarazi ditu bi eskualdeak

Sindikatuak greba «ia erabatekoa» izan dela diote, eta langile gazteen parte hartzea nabarmendu dute

Itzea Urkizu

Erabateko jarraipena izan zuen atzo, Tolosaldean eta Leitzaldean, Raxoiren gobernuak onartutako lan erreformaren aurka antolatutako greba orokorrak. Eskualdeetako lantegi gehienek bat egin zuten grebarekin, eta kaleak hustu ziren, saltoki eta taberna itxiekien.

Aldarrikapen eta protestak piketeekin hasi ziren Tolosan, 05:30ean. Usabal kiroldegiko aparkalekuan hitzordua zuten, eta Usabal industrigunetik, Apatia Errekara, Alegiara eta Tolosako kaleetara joan ziren.

Era berean, eguerdiko 12:30ean Donostian izan zen manifestazio-erantzua joateko ere antolatu ziren sin-

dikatuak eta langileak; Tolosaldeko hainbat herritarrek parte hartu zuten.

Leitzaldetik, berriz, Iruñeko manifestazioa «jende asko» joan zela azaldu zuen Oier Eizmendi Leitzako alkateak. Kotxe karabana ere antolatu zuten Leitzan, eta 20 auto inguruk parte hartu zuten. Leitzako alkatean «dena geldirik» egon zela nabarmendu zuen, eta Iruñera joateko jende mordoia elkartu zirela. Sarriopapel enpresan ez zuten lanik egin, eta «Aresoko industrigunean langile gutxi batzuk bazeuden» arren, ez zen ia jarduerarik izan.

Sindikatuaren aldarrikapen eta deialdiez gain, ordea, Leitzaldeko Bilgune Feministak emakumei zuzendutako deialdia egin zuen aurreko mantalak balkoietatik zintzilika jartzea proposatu zuten: «Etxe hau greban dagoenaren adierazle izateko egin dugu deialdia, eta emakumeok ere greban, kalean, gure eskubideen alde borrokan ariko gara». Bide beretik, Leitzan antolatutako mo-



Murala margotzen aritu ziren gazteak irudian. I. GARCIA LANDA

bilizazioetan parte hartzeko deia egin diete, bereziki, emakumeei.

Sindikatuak oso gustura

Euskal sindikatuak eskualdeetan dituzten ordezkariek oso gustura azaldu zuten beren burua, grebak izandako erantzunagatik. LAB sindikatuko Mari Mujikak jarraipena ia erabatekoa izan zela nabarmendu zuen: «Balorazio oso-oso positiboa egin dugu; ia erabatekoa izan da greba. ELAK eta LABek, gainera, gaurko deialdietan erreformaren aurkako aldarri nahiko bateratuak egin di-

tugu; izan ere, sekulako jipoia izango da langileontzat erreforma, eta guk grebaren ondorioei garrantzia eman nahi izan diegu. Ofizialki oraindik martxan jarri ez duten arren, zenbait enpresetan erreforma berria aplikatzen hasiak dira». Mujikak, bereziki, goizeko piketeetan eta Donostiako manifestazioan gazte jende askok parte hartu zuela nabarmendu nahi izan zuen.

Egoera honen aurrean, euskal langileek protesta bat gehiago ere egin behar dutela uste du Mujikak: «Madrilen hartzen dituzten erabakien aurrean, euskal langilei burujabetzaren aldeko apustua egitea besterik ez zaigu gertatzen, Madrilen hartzen dituzten erabakien aurrean inolako ahalmenik ez dugulako».

Langileen erantzuna aurreikusi zuten sindikatuak: «Aurreko grebekin ikusi genuen, jendea eguna jarri genuenez geroztik, nabaritu genuen jendea nazkanazka eginda dagoela».

Lan erreforma

Bidegabeko kaleratzeak.

Kalte-ordainak murriztuko dira. Lehen, lan egindako urte bakoitzeko 45 egun ematen ziren, gehienez ere 42 hilabeteko mugarekin; orain, 33 egun eta 24 hilabeteko mugarekin.

Bidezko kaleratzeak. Lan egindako urte bakoitzeko hogeiguneko da kalte-ordaina. Hiru hiru hilabeteko jarraian fakturazioa edo salmentak jaitsi zaizkiela frogatzea aski dute enpresek.

Kontratuko baldintzak. Arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketazkoak edo produktiboak egonez gero, enpresak lan kontratuko baldintzak aldatu ahal izango ditu.

Lan hitzarmeneko edukiak. Bi hiru hilabeteko jarraian diru sarreraren edo eskaeraren jaitziera baldin badute, enpresek aukera dute lan hitzarmeneko edukiak ez betetzeko. Langileak ados ez badaude, bitartekari batek erabakiko du.

Ultraaktibitatea. Epez pasatutako lan hitzarmeneko, gehienez ere, bi urtean jarraitu ahal izango dute indarrean. Handik aurrera, oso-osoki negoziatu behar harko dira hitzarmen berriak.

Erregulazio espedienteak. Espedientea indarrean jarri ahal izateko administrazioaren baimenik ez du behar enpresak. Ados ez dauden langileek auzitara jo beharko dute.

Eguerdiko manifestazioekin, ordea, langileen aldarriak ez ziren isildu. Arratsaldean, manifestazio jendetsuak izan ziren bai Leitzan eta baita Tolosan ere. Sindikatuak bat egin zuten eragile sozialek Tolosan, eta adierazpen bateratua irakurri zuten. Besteak beste, atzoko greba orokorra «erasoei emandako erantzuna» izan zela azaldu zuten: «Politikak aldatzeko aldarria izan nahi du. Mugimendu sindikal eta sozialaren erantzuna ematen die, eta deialdira botatzen du Europan zehar erabakitzen ari diren politiken aurka». Lan erreformak ekarriko dituen aldaketa nagusiak ere salatu zituzten jarraian.

Zenbait gazte identifikatuta

Zenbait gazte identifikatu zituen atzo arratsaldean Ertzaintzak Tolosan, grebaren inguruko mural bat margotzen ari zirela.

Zezen plazako horma batean murala margotzen ari zirela, Ertzaintza muralik ezin zutela egin esan zieten. Gazteek, ordea, Tolosako Udalaren baimena zutela erantzun zieten; Ibai Iriarte alkatere bertan izan zen auzia konpontzeko. Ertzaintza gazteak minutu batzuz eurekin eduki eta identifikatu ondoren, murala egiten jarraitzeko baimena eman zieten.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Ibarra eta Amasa-Villabonako saltokiek ez zituzten beraien ateak ireki; auto gutxi eta jendeak paseorako edo kirola egiteko probestu zuen eguna. Hondakinak ez zituzten bildu, atzo.E.M.



Tolosako kaleak hutsik geratu ziren; dena itxita egon zen. LURKIZU

Anoetako industrigunean ere lantegiak ateak itxi zituzten; auto batzuk baino ez zeuden. E.M.

Greba egitearen aldeko iritzia gailendu da herritarren artean, «langileen eskubideak murrizten direlako»

«Urte hauetan guztietan lortu duguna kendu digute»

Eneritz Maiz - Iñigo Terradillos

Otsailaren 10ean onartu zuen Lan Erreformaren lege dekretua Espainiako Gobernuak. Sindikatuen arabera, demokrazia-aldian egin den erreformarik «erasokorrena eta kaltegarriena» da. Bartzuek txalotu egin dute, eta epe luze-luzera lanpostuak sortzeko balioko duela diote. Besteek, berriz, sortu baino, lanpostuak suntsituko dituela uste dute, langileen kalera-tzea errazten duelako. Azken hauen iritzia berekoak dira atzokoa kalean topa zitezkeen herritarrak.

Edurne Belasco eta Miren Okariz greba orokorraren aldekoak

dira: «Langileen eskubideak murrizten ari dira lan erreforma honen ondorioz, eta nolabait keaztuzko beharra sentitzen dugu». Dena den, ez dute uste aldarrikapenek egoera ezertan aldatuko dutenik: «Ez dugu zerbait lortuko dugunaren inolako esperantzarik».

Iritzi berekoa da Jesus Mari Arregi. Egun ez dago lanean, jubilatuta baitago, baina, argi ikusten du langileei murrizketa handiak egiten ari direla. «Langileek ez dute egungo egoera txarraren errurik, baina beraiei eragingo die gehien hartu dituzten neurriek». Bestalde, Arregik uste du gazteek etorkizun zaila izango du-


tela. Hori guztia kontuan hartuta, greba egitearen alde dago, baina bere ustez, «lehenago egin beharko litzateke, egungo egoerara iritsi aurretik».

Tere eta bere koadrila aspaldian hartu zuten erretiroa, baina arrazoi ugari ikusten dituzte grebarekin bat egiteko. «Ez da gauza handirik lortuko, baina behintzat zure desadostasuna adierazten duzu», azaldu dute. Izan ere, «urte askotan lortu duguna uste batean kendu digute». Horrek lehengora itzultzea esan nahi duela uste dute, eta horregatik beste garai batean lan egin izana eskertzen dute. «Gazteentzat, oso etorkizun zaila nabari dugu».



Kaleetako aulki eta parkeak izan ziren jendez bete zirenak. E.MAIZ

Elketa Jatetxea



Aste Santuko MENU BEREZIA honakoa da:

Ettxeko janaurrekoa

foie entsalada barazki xigortuekin
marisko krema
tomate, atun bentreska eta albahakaz beteriko hojaldea
espinalda eta limoi risotoa
tallarrinak izokin keztatu saltsarekin
onddo eta iberiar urdiazpiko nahasia

bakailua bizkaier erara
legatza plantanxan entsaladarekin
zapoa onddo saltsarekin
arkume paletilla errea
iberiar sekretua gazi gozo saltsaz eta rukula entsalada limoiarekin
azpizun hojaldratua haragi zukuarekin

etxeko tartak
marrubi kopa esne gainarekin
gazta bigun flana intxaurre saltsarekin

kafea, sagardoa, etxeko kriantza

Prezioa: 25€
(bez-a barne)

Aste Santuko ORDUTEGIA:

Apirilak 4, asteazkena gauetik, apirilak 9 astelehen gau-arte egunero zabalik.

Gure eskaintza honakoa izango da:

Eguerditan aste santuko menu berezia eta gauetan plater konbinatuak, tostak, razioak, entsaladak...

ERRERERBA EGITEKO:

San Miguel bailara, 2 · Hernialde · 943 65 21 16

elketajatetxea@hotmail.com

Piketeeek ez dute lan handirik izan eskualdean

Greba orokorrak ia erabateko jarraipena izan duenez, kaleetan zein industriguneetan lasaitasuna nagusitu da

Eneritz Maiz - Iñigo Terradillos

Ez ziren atzo, «eskirol» edota «gaur greba orokorra» bezalako oihuak askotan errepikatu. Ez behintzat piketeen aldetik. Eskualdean greba orokorrak izan duen erantzun handiaren adierazle, piketeek ez zuten lan handirik izan lantegietatik eta dendetatik eginiko zeharkaldietan.

05:30ean, Usabal kiroldegiko aparkalekuan egin zuten hitzor-

dua. Bertan, 100 lagun inguru elkartu ziren. Talde horretan, gehiengo gizona gazteak baziren ere, tartean heldu eta oso gazteak zirenak ere ikus zitezkeen. Emakume gutxi gerturatu zen. Usabal industrigunea zeharkatu zuten lehenengo, eta lantegiren bateko argiak piztuta ikus bazitezkeen ere, grebaren erantzun ona begibistakoa zen. Jarraian, Apatta Errekako industrigunera gerturatu ziren, eta dena itxita ikus zitezkeen goizeko lehen orduetan.

Bertatik, Alegirako bidea hartu zuten, eta Becker lantegira joan ziren. Ika mikarrik handiena bertan izan zuten piketeek. Izan ere gutxieneko zerbitzuean ari ziren lanean. Sindikatuen ustez

ordea, «lantegia ez zen gutxieneko zerbitzuan lanean ari». Langileekin hitz egin nahi izan zuten, eta kanpoko atea ireki eta barruraino sartzen ahalegindu ziren, baina Ertzaintzak galarazi zuen.

Tolosako kaleetan barrena

07:30ean Trianguloan elkartu ziren guztiak, eta herritar gehiago batu zitzaizkien. Batzuk, Tolosako kaleak zeharkatzen zituzten bitartean, besteak, eskualdeko industriguneetatik igaro ziren. Tolosan, ia guztia itxita zegoen. Epaitegia eta banketxeren bat kenduta.

Beraz, kasu honetan ere, piketeek ez zuten borroka handirik egin behar izan.

● tolosaldean@hitza.info



05:30ean egin zuten hitzordua piketeek Usabalg aparkalekuan. I.T.



Lehen geldialdia Apatta Erreka Industrigunean egin zuten. I.T.



Alegiko Becker lantegian piketeek barrura sartu nahi izan zuten, lanean ari zirelako, baina ez zuten lortu. 07:30ean Trianguloan elkartu ziren Tolosako kaleak zeharkatzeko. E.M.



100 lagun inguruz osaturiko taldea aritu zen lantegietatik eta dendetatik igarotzen. Santander bankuaren parean geratu ziren piketeak, bertan lanean ari zirenen susmopean. I.T.

Larrun

Harraparien bizia!
Apirilaren 9tik maiatzaren 4ra,
astelehenetik ostiralera.

Egunero irekia 09:30etik 11:30era
eta 14:00etatik 16:00etara



Animazio berriak urrik!



2012

www.rhune.com

Hainbestetan ondotik autoz igarotako herria ezagutzeko, eta, bide batez, ariketa pixka bat egiteko aukera ematen du ibilbideak.

Berastegi, belardien lautada

Imanol Garcia Landa

Bihurgunez betetako errepidean zehar Tolosatik Berastegira iristean, begiek atsedena hartzen dute: belardiz beteriko bailara zabal eta berde bat irekitzen da. Berastegi leku berezia dela ezin da ukatu, eta ibilbide honek herria hobeto ezagutzeko aukera ematen du.

Herriko enparantzan dagoen autobus geltokia abiapuntu hartuz, kale nagusia hartu eta hau bukatzen denean, eskuinera jo behar da, herri eskola alderaino. Hango bidegurutzean, Izotzalde auzora joan behar da, ezkerretara, seinaleek adierazten duenari jarraituz.

Pixkana kaskoa atzean uzten joan eta errepidetik ikusitako lautada, berriro begi bistan azalduko da. Herrigunean biltzen dira etxe gehienak, baina ez dira oso altuak, gehienez lau edo bost solairu dituzte, eta asko baserriak edo etxebizitzak bakarreko etxeak. Bidean aurrera, ibiltariak laster egingo du topo belardietan dauden abereekin. Ardiak dira nagusi, eta artalde asko ikusten dira, asko baitira hesituta dauden belardiak. Aska luze batera ura isurtzen duen iturri batekin topo egingo du ibiltariak, zintzurra pixka bat bustitzeko, hala nahi izanez gero.

FATXO JAGOBA AZPIROTZ MANTEROLA



DATUAK

- **Luzera.** 4.700 metro.
- **Ezaugarriak.** Bira eta joan-etorri bat.
- **Hurbilketa.** Aldiriko Renfe trenean Tolosara eta gero autobusean Berastegiraino.
- **Hasiera-bukaera.** Berastegiko autobus geltokian.
- **Zailtasun maila.** Malda errazak.
- **Azalpenak.** Berastegiko lautadan ibilaldia.
- **Interesguneak.** Eliza, udal-etxea eta Jaundegi eta Meaka baserriak. Naturgunea.

Izotzalde auzoko azkenaurreko baserria da Arbide. Bideak eskuinera bira egiten du bertan, eta ibiltaria berehala Elizalde auzora begira jartzen du. Atzean utzitako kaskoa urrutian ikusten da berriro. Alde batera eta bestera baserri eta etxeak ikusten dira; batzuk zaharragoak, besteak orain gutxi egindakoak.

Izenak dioten bezala, Elizalde auzoko eraikin nabarmenena eliza da. Herrietan ohikoa da elizak eta udaletxeak herrigunean izatea, baina Berastegiren kasuan, eliza aparte geratzen da, ondoan lauzpabost etxe dituela. Tourseko

Ibiltariak belardian dauden abereekin egingo du topo, batez ere, ardiekin

Jaundegi etxea (XVI) Erdi Aroko gerrate garai gogorren oroitzapena da

Martin Deuna parrokia gotiko estilokoa da, baina ataria erromanikoa du. Hain justu, sarrerak duen estalpeak bisita merezi du, ez baita erraza horrelako zabalerako zutabeak ikustea. Parrokiaren ondoko etxeetako bat Jaundegi da, Erdi Aroko gerrate garai gogorren oroitzapena. Estilo gotikokoa da (XVI) eta ondare kultural sailkatua da.

Parrokiaren parera iritsita, ezkerreko bidea hartu behar da, Aiztunalde auzo aldera. Elizaren atzeko iturriak geldialdixoa egiteko aukera ematen du. Bidean



Ibiltarien begiek urrutira begiratzeko aukera dute, Berastegi zeharkatzerakoan. I.G.L.



Tourseko Martin Deuna parrokiaren ataria eta Izotzalde auzoan dagoen iturria. I.G.L.



aurrera, zelaia lagun, ibiltaria Azpikoetxe baserrira iritsiko da. Han buelta hartu eta, bide bereetik, Elizalde auzora iritsiko da. Bueltako bidean, urrunean kaskoa ikusiko du, eta bere atzeko muinoan, baserri itxurako San Sebastian basiliza.

Behin parrokiara itzulita, ezkerreko bidea hartu behar da, herrigunera, abiapuntu izan den herriko enparantzara. Horretarako aldapa txiki bat igo behar da, bide gutziko bakarra. Izan ere, ibilbideak ordurako ederki erakutsi du Berastegi oinez ezagutzeko lautada eder bat dela. Herriko plazara iristekoan, hasieran ez badio ondo erreparatu, ibiltariak aukera izango du Eusko Jaurlaritzak monumentu izendatu berri duen udaletxea begiratzeko.





Jatetxea




Herriko plaza, 7
Berastegi
Tel.: 943 683 059

www.restaurantearregi.com



Larte

Arantxa Garraiburu
Mf. 678437378
Berastegi, Gipuzkoa

Bisita gidatuak daude.
Aurretik deitu.



Astelehenetik aurrera XIV Orduak ibilaldian izena eman daiteke

Aralarko Adiskideak elkartearen web orrian eman ahal da izena; maiatzaren 27an izango da proba

Iñigo Terradillos Tolosa

Mendizale askoren solasaldietan bolo-bolo dabilen gaia da. Ez dira aste asko geratzen probarako, eta urduritasuna eta zirrara nabaritzen hasiak dira. Maiatzaren 27an izango da Aralarko Adiskideak elkarteak antolatzen duen XIV Orduak ibilaldia, eta datorren astelehenetik aurrera, hau da, apirilaren 2tik aurrera izena eman ahal daiteke parte hartu nahi dutenek.

Gipuzkoa eta Nafarroa lotzen duten mendietan zehar egiten den 69 kilometroko txangoa lau urtetik behin egiten da, Olinpiar Jokoekin batera, hain justu. 1925ean egin zuten estreinakoz, eta orduetik 14 aldiz egin da ibilaldia. Lehendabizikoan 14 mendizalek egin zuten txangoa. 1926an egin zuten bigarrena, 43an hirugarrena eta 67an laugarrena. Orduetik lau urtero egin dute. 80ko hamarkadan partaidetzak gorakada izan zuten, eta 90koan, berriro, igoera are eta handiagoa izan zen, azkenekoan, 2008koan 3.100 parte hartzailea iritsi zelarik.

Ibilbide anitza

68,5 kilometroko txangoak Tolosan du irteera eta helmuga, eta Gipuzkoako 10 eta Nafarroako 7 herritik igarotzen da: Ibarra, Leaburu, Gaztelu, Berastegi, Oresa, Lizartza, Areso, Gorriti, Azpiroz, Lekunberri, Baraibar, Iribas, Uharte Arakil, Amezketa, Alegia, Altzo eta Tolosa.

Ibilbidea oso anitza da; goranzko eta beheranzko aldapak, bide lauak, belarra, harriak edota errepedeak dituelarik. Hain zuzen ere, 30 kilometro dira asfaltatutako errepedetik egiten dena, 18 gurdi bidetik, 15 baso bidetik eta 5 beheranzko aldapak. 1.946 metroko batez besteko malda du.

Gisa horretako ibilaldi luze batek behar duen moduan, gorpuzta indartzeko anoa guneak topatuko ditu mendizaleak bidean zehar. Halaber, parte hartzaileen osasuna eta segurtasuna bermatzen duten zerbitzuak ere bertan izango dira.

«Ez da lasterketa»

Antolatzaileek XIV orduko ibilaldia ez duela irabazlerik nabarmendu dute, «ez baita lasterketa, mendi txangoa baizik». Era berean, milaka lagun mendian ibiltzeak ingurugiroan eragina izan dezakeela ere azpimarratu dute, eta horregatik, mendizale guztiei mendiarekiko errespetua izan dezaten eskatzen diete.



Askotariko ibilbidea da, eta ikuspegi zoragarriez gozatu ahal dute mendizaleek. HITZA

↓ Hainbat datu

XIV. ORDUKO IBILALDIA

- **Eguna.** Maiatzaren 27a.
- **Luzera.** 69 kilometro.
- **Ibilbidea.** Tolosa, Ibarra, Leaburu, Gaztelu, Berastegi, Oresa, Lizartza, Areso, Gorriti, Azpiroz, Lekunberri, Baraibar, Iribas, Uharte Arakil, Amezketa, Alegia, Altzo eta Tolosa.
- **Malda.** 1.946 metro.
- **Anoa guneak.** Sei gune egongo dira: Gorritin, Lekunberri, San Migelen, Igaratzen, Amezketa eta Alegian.
- **Kontrol guneak.** Ziurtagiria jasoko dute kontrol guneetatik denbora barruan igarotzen direnek.
- **Izen-ematea.** Apirilaren 2tik aurrera, eta elkartearen webgunean (www.aralarkoadiskideak.org).



Milaka parte hartzaile izango dira aurten ere. HITZA

Zero Zabor taldearen aurkezpena egin dute Ibarra

Herritar guztien artean hondakin kopurua gutxitzeko hartu beharreko neurriak adostea du helburu

I. Terradillos Ibarra

Asteartean aurkeztu zuten Ibarra Zero Zabor taldea. Hondakin arazoari «guztien artean» konponbidea aurkitzea du ekimenak helburu. Hondakin gutxiago sortzea da lehen pausoa, izan ere, bultzatzaileen arabera, «hondakin onena sortzen ez dena da». Zero Zabor-en bigarren ardatz nagusia birziklapena da, eta horretarako gaikako sistema eraginkorra beharrezkoa dela diote. Hon-

dakinen alorrean ikerketarekin jarraitzea ere ezinbestekotzat dute, «sortzen den hondakin guztia berrerabilia izateko». Era berean, «egungo sistema linealetik» sistema zirkularra pasa behar dugula diote Zero Zabor taldeko bultzatzaileek: «Egun, naturatik ustiatzen duguna, erabili eta bota egiten dugu, baina guk behin eta berriro erabilia izatea beharrezkoa dela uste dugu».

Gaiak duen ikusminaren seinale, Ibarra udaletxeko batzar aretoa jendez beterik zegoen. Atez ateko gaikako bilketaren aurkako jarrera azaldu zuten askok, eta euren kezka jendaurrean adierazi zituzten. Halaber, Gipuzkoa Zero Zabor ekimeneko ki-deak ere baziren, ibararren zalantzak argitzera etorriak.



Ibarra udaletxeko batzar aretoan jende ugari elkartu zen astearte iluntzean. I.T.

Maialen Abaigar eta Egoitz Luisa ◊
Herrira mugimenduko kideak

«Euskal preso eta iheslariak etxeratzeke helburua duen mugimendu zabala da Herrira»

Asier Imaz

Maialen Abaigar Urreta (Villabona, 1984) eta Egoitz Luisa Urkola (Anoeta, 1983) eskualdeko Herrira bilguneko kideak dira. Hileko azken ostiraletako mobilizazioak indartzea dute helburu, besteak beste, eta gaurko elkarretarazteetan parte hartzeko deia egin dute. **Zer da Herrira mugimendua, eta zergatik sortu da?**

Maialen Abaigar: Euskal preso eta iheslariak etxeratzea helburu duen mugimendu zabala da Herrira, helburu horrekin bat egiten duen orori irekia. Euskal preso eta iheslariak bizi duten egoera oso errealitate gordin eta mingarria da. Egun estatuen espetze politika giza eskubideetan eta konponbidean oinarritua egon beharrean, pertsonaren suntsipenean eta mendekuan oinarritua dago.

Egoitz Luisa: Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko dinamika iraunkorki jorratu izan da urte luzeetan. Azken hilabeteetan Egin Dezagun Bidea ekimenaren barruan eragile, alderdi eta herritar ugariaren babesa eta inplikazioa lortu da. Hori argi erakutsi zuen Bilboko mobilizazio kolosalak. Bide horretan sakontzeko asmotan sortu da Herrira.

Alderdi politikoetatik akokatuz duzue mugimendua, zergatik?

M.A.: Herrira ez da alderdi edo ideia politiko konkretu baten mesedetan ariko den mugimendua. Gure helburua lortzeko pentsaera politiko ezberdinetako herritarrek elkartu nahi ditugu.

Herriraren helburu edo aldarrikapenen artean, zein dira lehentasunak?

E. L.: Bere biziko larritasuna duen egoerak konpontzen hasteari



HITZA

lehentasuna ematen diogu. Giza eskubideen alorretik begiraturaz gero, espetxean egoera onartezinak ematen dira.

M.A.: Hasteko, 15 presok oso gaitasun larriak izan arren espetxean jarraitzen dute. 77 presori beraien zigorra bete egin arren kondena luzatu egin zaie. 134 presok zigorraren 2/3 edo 3/4ak bete eta espetxean jarraitzen dute. Horrez gain, Euskal Herrian martxan dagoen prozesuan parte hartu behar dutela uste dugu. Horregatik euskal presoak Euskal Herriko espetxeetan batu eta prozesuan parte hartu ahal izateko bitartekoak ipini behar zaizkie.

Eskualdeko gizartera begira, zein helburu ditu Herrirak?

E.L.: Gure helburua herriz herri ahalik eta herritar gehien inplikatu eta aktibatzea da. Hileko azken ostiraletan gero eta herritar gehiago elkartu, eta gero eta bai koi eta txoko gehiagotan euskal preso eta iheslarien aldeko banderolak ikusi nahi ditugu.

M.A.: Tolosaldeko hainbat herritan Herrira bilguneak osatu dira eta herritar ororentzat irekiak di-

ren batzarrak antolatu dira. Eskualdean dagoen herri kopurua ikusirik, garrantzi berezia ematen diogu Herriraren berri herri guztietara iristeko bitartekoak izateari.

Zein ekimen daude aurreikusita?

E.L.: Gure helburua hileko azken ostiraletako mobilizazioa indartzea da. Iruditzen zaigu preso eta iheslariak etxeratzeak hilean ordu erdi merezi dituela.

M.A.: Hala ere, beste hainbat ekimen antolatzen ari gara. Adibidez, apirilaren 28an Aiztondo bailara mailako Herrira Eguna antolatu dugu. Asteasun. Bestetik, maiatzaren 19an *Goazen Plazara!* ekimena antolatu da. Helburua eguerdiko 13:00etan herriz herri Euskal Herriko plaza guztiak herritarrez betetzea da.

Iheslariaren kasuari dagokionez, zein irtenbide aldarrikatzen duzue?

E. L.: Bi dira eskatzen ditugun neurriak. Batetik, beraien aurka joazarpenarekin amaitzeko lehenbailehen, eta, bestetik, Euskal Herrian martxan den prozesuan parte hartu ahal izateko bitartekoak ipintzea.

Anoetak eta Irurak atez ateko bilketaren alde egin dute

Aste honetan egindako osoko bilkuretan onartu dituzte hondakinen murrizketari buruzko mozioak bi udal

I. Garcia Landa

Anoetako eta Irurako udalek ohiko osoko bilkurak egin berri dituzte, eta bietan atez ateko bilketaren sistemaren alde egin dute. Anoetan, zehazki, Bilduren aldeko sei bozka eta EAJren aurka bi jaso zituen. Iruran, Bilduko aldeko zortzi bozka eta EAJren kontrako bozka bat izan ditu mozioak.

Mozioan zehazten denez, udal bakoitzak «ahalik eta hondakin gutxien sortzeko» azterketa abiatuko du Tolosaldeko Mankomunitatearekin. Horrez gain, mankomunitatearekin batera, bi udalek adostuko dute konpostatze kanpaina zabala egitea herriko familien artean. Horrez gain, «ahalik eta gehien birziklatze aldera, emaitza onenak lortzen dituen hiri-hondakinen bilketaren alde egiteko konpromisoa» har-

tzen dute. Onartutako mozioan zehazten denez, «%80ko birziklatze maila lortzen ari den sistema bakarra atez ateko bilketa da, gaur egun». Horrez gain, udal bakoitzak «etengabeko urratsak» emango ditu bere udalerrira «zero zabor lurralde» bihurtzeko bidean. Azkenik, hori guztia burutzeko, Tolosaldeko Mankomunitatearekin lan batzorde bat osatzeko eskaera egingo du udal bakoitzak.

Pello Estanga Anoetako alkatearen esanetan, «udalak erabateko garrantasunez jokatu du gai honen inguruan». Prozesu honen urrats guztietan herritarren arteko adostasuna lortzen saiatuko direla gaineratu du Estanga.

Bateragune auzia

Irurako osoko bilkuran ere Bateragune auziari buruzko mozioa onartu zen, Bilduko zortzi bozka-ekin eta EAJren abstentzioarekin. Bateragune auzian Auzitegi Nazionalak emandako ebazpena bertan behera utzi eta Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto aske uzteko eskaria egiten du mozioak.

→ Laburrak

III. Herri Batzarra egingo dute eskolako ganbaran

BERASTEGI ◊ Gaur Berastegin, III. Herri Batzarra egingo dute, 21:00etan, eskolako ganbaran. Udal taldeak herritarrek animatu ditu bertan parte hartzera, «herritar guztion partaidetzarekin eta elkarlanarekin» aurrera egin nahi baitute. Besteak beste, gai hauek izango dira hizketagai: udaletxearen zaharberritze lanen jarraipena, ur zerbitzuen kudeaketa, zabor bilketa, uholdeen ondorengoak eta arau berriztatzaileak.

Autodefentsa feminista ikastaroa, bihar

TOLOSA ◊ Aurrez Aurre ekimenaren baitan, Tolosaldeko Bilgune Feministak *Autodefentsa Feminista* tailerra antolatu du, biharko. Kultur etxean da, 10:00etatik 13:30era (tartean atsedena), eta doan izango da. Aurrez izena eman behar da 943 67 03 83 zenbakira deituz. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

Biharko auzolanerako deialdia egin dute

ANOETA ◊ Azken urteetan auzolan filosofiari indarra ematen ahalagindu dela azaldu du Anoetako Udalak, eta ekimen horrekin jarraitu nahi du. Hasteko, Ateagako karobia eta Ateaga-Etxeberriko askaren garbiketa egiteko asmoa dute. Horretarako, bihar elkartuko dira, 10:00etan, eta herritarrek deitu dituzte parte hartzera.

Ohiko udal batzarra egingo dute, gaur, 20:00etan

BIDEGOIAN ◊ Udalbataz ohiko udal batzarra egingo du, gaur, 20:00etan. Besteak beste, Ernio inguruan adierazpena onesteko proposamena eta Bidegoiango hiri antolamenduko plan orokorraren testu bategin berria idazte lanak esleitzeko proposamena jorratuko dira.

Eresargi abesbatzaren kontzertua, bihar

AMASA-VILLABONA ◊ Eresargi abesbatzak kontzertua eskainiok du, bihar. Villabonako elizan izango da emanaldia, 19:30ean.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu
tolosaldea@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibaraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan emanaldia bihar, 16:30ean, Leidorren.
- **Tolosa.** Litaarafu Ezagutuz elkarteko kideek elkarretaratzea egingo dute gaur, 15:00etatik 16:00etara, Trianguloan pasa den igandean Tolosan izandako emakume baten hilketari salatzeko.

MUSIKA

- **Tolosa.** Leidorren gaur, Ruper Ordorika, 20:30ean.
- **Tolosa.** Bonberenean gaur, Chalwa Band & Big Konsulena emanaldia, 22:30ean.
- **Tolosa.** Musika Banda bihar, 19:00etan, Berdura plazan.
- **Tolosa.** Orfeoia bihar, 20:30ean, Santa Klara elizan.
- **Tolosa.** Xabier Montoia Bonberenean, bihar, 22:30ean.

DANTZA

- **Tolosa.** Udaberri dantza taldeak antolatuta Dantzari Txiki eguna eta erromeria, bihar. Dantzari txikiak 11:00etan aterako dira plaza Berritik eta 19:45ean hasiko da erromeria, plaza Zaharrean.

Txotxongiloaren Egunaren jarraipena, gaur, Topic zentroan

'El chico de la última fila' ikusteko aukera izango da; haurrentzako tailer bat eta festa bat ere egingo dituzte

Erredakzioa Tolosa

Pasa den hilaren 21ean izan zen Txotxongiloaren Nazioarteko Eguna, baina Tolosako txotxongiloen etxeak, Topic zentroak, gaur emango dio jarraipena ospakizun egunari.

Eguerdian hasiko dituzte ekitaldiak; herriko zenbait ikaslek Donostiako Estudio taldearen *El chico de la última fila* ikusi ahal izango dute. Lan bera 20:00etan ikusi ahal izango dute gainontzeko pertsonak.

Haurrentzako tailerra

Era berean, 17:30ean, *Eman bizia txotxongiloari* tailerra egingo dute bost urtetik gorako gazteenzat. Paula Alfieri izango da irakaslea eta gurtaritzen diren haurrei txotxongiloekin lan egiten irakatsiko die. «Ikasleak txotxon-

gilo bihurtuko dira, oihalei bizia emango diete, titiriteroen sekretuak ikasiko dituzte...», azaldu dute Topic zentroko arduradunek.

Jai eguna gauean bukatuko dute; 22:00etatik aurrera festa bat egingo du UNIMAK, Txotxongiloaren Nazioarteko Batasunak, Topic etxeko tabernan.



Iazko ospakizun egunean, *Colorin eta bere lagunak* erakusketa jarri zuten. HITZA

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!

Maria Jesus Iturbe (Asteasu).

Gaur urteak.

Zorionak eta muxu asko, seme-alaba, biloba eta birbiloben partetik.



harpidedun izateak badu saria

saridunak

1 Ostatu Hernialde Jatetxea

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Idoia Arraiago (Areso)

Hernialde • Tel.: 943-65 24 96

Eskaera egiteko, bi hilabete.



2 ERROMERIA-Udaberri Dantzari Taldea

Bi lagunentzako txartela

Feli De Castro (Tolosa)

Martxoak 31 • Larunbata
Tolosako Zerkausian

Sarrerak Tolosako HITZAko egoitzan izango dituzte: Araba etorb, 5 behea • Tolosa • 943 65 56 95



3 Euskal Eskola Publikoaren XXI. jai

Bi elastiko



Ramon Aranzabe (Anoeta) Mariasun Eizmendi (Tolosa)

Saridunek etxean jasako duzue elastikoa.

www.ehige.org/jai2012/

4 EUREKA! Zientzia museoa

Bi lagunentzako bina sarrera

Leire Otaegi (Anoeta) Leitzako Ikastetxe Publikoa (Leitza)

Mikeletegi, 43-45, Donostia
Tel.: 943 012 478
www.eurekamuseoa.es

Saridunek bina sarrera izango dituzte leihatilan, bi hilabetez.



5 Lagun Aro GBC

Sarrera pare



Ana Goikoetxea (Ibarra)

Sarrerak Tolosako HITZAko egoitzan izango dituzte: Araba etorb, 5 behea • Tolosa • 943 65 56 95

Apirilak 8, igandea
12:30ean
Donostiako Ilunben